

Idea

Gure enpresa COVID-aren garaian eratu zen. Egoera horretan emandako baldintzen ondorioz, ikusi genuen ezintasunak dituzten umeei aukera gutxiago zituztela jostailuak erabiltzerakoan. Horren ostean, produktu original batzuk egitea erabaki genuen, laguntzeko helburuz. Eta honela sortu zen *Vitium' Toys* enpresa.

Gure asmakizuna produktu bat da, jostailuak dira hain zuzen. Ekoizten ditugun produktuak ume desgaituentzako jostailuak dira, haien beharrak asetzen laguntzeko helburu dutenak. Horrela, gure produktuak arazoak dituzten umeei gainerako umeen artean integratuta sentitzeko aukera ematen die. Halaber, haien garapen emozional eta fisikoari mesede egiten die.

Gure produktuetako bat errubik kubo tradizional baten antzekoa da, ume itsuei egokitzen zaiena. Beraz, koloreak bereiztu ahal izateko braillez irudikatutako sinbolo batzuk ditu, horrela umeei kuboaren osa dezaten. Mota honetako produktu gehiago ditugu ume guztiek jolasteko. Horretaz aparte, jostailu pertsonalizatuak ere baditugu, bezeroaren eskaeraren araberrakoak. Adibidez, umearen izena jar dezakegu jostailuan bertan edota marrazki bat, baina horretarako produktua alde aurretik eskatu beharko da.

Nahiz eta desgaitasunak dituzten umeentzako jostailuak egiten dituzten enpresak existitu, gure enpresak jostailu pertsonalizatuaren abantaila du. Gainera, agerikoa da merkatu honek duen falta, arlo honetan jarduten duten zenbait erakunderekin hitz egin ostean ikusi dugunez. Horrenbestez, esparru honetan merkatua hutsik dagoela ondorioztatu daiteke. Beraz, gure ustez, gure enpresak arrakasta izateko aukera handia du.

Isamar Armendariz, Iker Arrizabalaga,
Éther De Prado, Ainhoa Lanzagorta
eta Nidia Sánchez

